

## EZBERDINTASUNEAN, BERDINTSU

Txiiiist, zu, bai, zu...txiiiist!! Zuri ari naiz ttiki...

Aizu, zenbat urte dituzu? 5, 7, 9? Eta zure heldutasuna zure urteen adinakoa da? Heldua zara? Hori esaten dizute maitasunez zure gurasoek, jada handia zarela? Eta nik, galderatxo bat egin nahi nahi nizuke... benetan handia izan nahi duzu? Benetan heldua izatea amesten duzu?

Ni adibidez, oso handia eta zaharra naiz, oso oso zaharra; basoa naizelako, Euskal Herriko oihana. Eta garai batean, ni ere oso bizi sentitu nintzen, nigan eta nirekin asko bizi izan zirelako. Askok eta asko, pila bat; batez ere zu bezalako gizakiak, aitona-amona, guraso eta seme-alabak... baina ez horiek bakarrik! Gizakiak eta izakiak ernaldutuen nire baitan, eta elkarrekin bizitzen jarri nituen; basoak garai bateko hiri eta herrixkak ginelako... denak, nire baitan bizi eta biltzen ziren.

Jarraitu aurretik, beste galderatxo bat... zu zer zara, haurra zara? Lehen deitu dizudan bezala, "ttiki" soilik zara? Edo izena daukazu? Ekhi, Axel, Bidane, Nahia, Shamir, Jonathan... sekretutxo bat kontatuko dizut: bai, bai, haurra zara baina batez ere ZU zara, izenak izana dakarrelako berarekin. Zergatik diodan guzti hau? Ni bezalako baso zahar batek mundua aldatzen ikusi duelako eta aspaldi batean, izaki bizidun guzti-guztiek zutelako berezko izen bat.

Eta orain ordea, zer? Orain dena da orokorra, dena izendatzen dugu funtsik gabe... dena da "txoria", dena da "landarea" eta dena da "harria"!! Eta harrietaz ari garela, aintzina nik nire baitan harriekin oso iaiaioak ziren izaki batzuk hazi nituen. Harrien eta naturaren baitan garatu zuten euren bizitza, heriotza bera ere naturalki harrien bidez irudikatzen ikasi zuten.

Baina badakizu zer? Ba, harriak, eurentzat ez zirela harri soilak... txoriak haientzat birigarroa, zapelaitza, arabazozoa, txantxangorria edo kukua ziren bezala, hileta-harriek ere euren izenak hartu zituzten: Kromletx, dolmen, trikuharriak, jentilarriak, mairu-baratzak... Haiak, jentilak ziren.

Garai beretsu hartan ere, beste emakume batzuk izan ziren, gaur arte iraun dutenak: sorginak. Haiek eta zuk, ttiki, gauza berdintsuak baina ez erabat berdinak irakurtzen ikasi duzue: orriak. Baina zuk, liburuetako orriak eta haiek berriz, zuhaitz, lore eta landareetako orriak.

Eta emakume haiek, sendagaiak egiten trebatu ziren eta bizitza ugari salbatu zituzten, guk gaur egun "botika" deitzen gauza orokortu horren bidez. Harriekin gertatu bezala, haiek sendagaiei izena jarri zieten: "intxusa", "arnika", "mihura", "azeribuztana", berbenen enplastoia" "pasmao-belarra"... deitzen zioten.

Eta, ttiki, esango banizu jentilak, eta sorgin haiekiko zu ez zarela hain ezberdina; zer esango zenidake? Erotu naizela? Gogoratu, ni baso zaharra naizela eta asko dakidala, urteetan jakinduria pilatu dudalako... harrituta? Itxoin pixka bat!

Zuri errieta egiten dizute, ttiki? Esaten dizute eserita ez zarela behar den bezala egoten? Azkar aspertzen zarela? Soilik interesa duzun horretan jartzen duzula arreta?

Ba, hori dena, niri ezaguna egiten zait, mende luzeetan zehar entzun izan dudalako gauza bera... zergatik? Ba nire baitan bizi ziren haietako askori gauza beretsua esan izan dietelako sarritan.

Haiek ere, helduek ez zituztela ulertzen sentitu zuten, mundua beste norabide batean zijoala konturatu zirelako. Arauak ez zituztenez betetzen, legeak inposatu zizkieten; eta haiekin guztiekin amaitu zuten. Haiek denak desagerrarazi zituen ustez mundu zibilizatuak, ezberdinak zirelako soilik. Desagerrarazi bai, baina haiekin amaitu? Hori uste dute amestea zer den ahaztu duten helduek!

Eta zu ttiki, oraindik ezberdina zaren honetan, oraindik heldua ez zaren honetan; ezberdintasunak berdintsu bihurtzen zaitu izaki haiekiko. Horregatik, nik behin eta berriz hala deitu dizudan arren, ez zaitez izan "ttiki", "ume" edo "haur" soilik. Izan zaitez Maddi, Xuhar, Xarene, Ane, Jeffrey edo Samira...

Izan zaitetz zu, eta munduak guztiz onartzen ez bazaitu, etor zaitetz nire magalera, naturara; eta nik gustura hartuko zaitut ezberdina bazara, nire baitan ezberdintasunak aberastu egiten duelako.

Izan zaitetz izen, gero izana garatzeko.

**BASOA**